



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2022ko laugarren hiruhilekoa




LABORAL
kutxa

AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren Osagarriak	7
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak.....	13
Eranskina – Aurkibideak	19
Eranskina – Metodologia	23
Fitxa Teknikoa	26

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA

- EAEko familiek ezkortasuna berretsi dute
 - Estatuko eta EB-27ko familietan ere, ezkortasuna
 - inguruko herrialdeetan zehar homogeneizatu egin da
- 


1 EAEko familiek ezkortasuna berretsi dute

2022ko laugarren hiruhilekoan berretsi egin da EAEko familien artean ezkortasunak jarraitzen duela: kontsumitzaileen konfiantza-indizea -23koa da urte amaieran, eta zifra horrek indartu egiten ditu igurikimenak; hala, urteko bigarren hiruhilekoan hasi zen agertokiaren okertzean ez da hobekuntzarik igartzen.

Grafikoak kontsumitzaileen konfiantzaren profil malkartsua islatzen du: pandemiarekin hondoratu egin zen (2020), pandemia ostean (2021) gora egin zuen, eta 2022an zehar okerrera egin du, ezkortasuna indartuz.

Laugarren hiruhilekoko igurikimeneak EAEko familien emaitzak berretsi dituzte: prezioen igoeraren espiralak baldintzatzen ditu oraindik ere, eta gelditu egin dela dirudien arren, lasaitasuna helarazten duten atalaseetatik oso urrun jarraitzen du.

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE




2 | Estatuko eta EB-27ko familietan ere, ezkortasuna

EAEko familiek (-23) bat egiten dute ezkortasunean Estatuko (-30) eta EB-27ko (-27) homologoekin. Urte honek (2022) ez ditu aurreratu ziren susperraldiaren igurikimenak beteko eta dagoeneko belztu dituzte 2023koak.

Konfiantzaren galera eta profil ezkorra partekatzen dira. Dinamika hori urteko bigarren hiruhilekoan hasi zen, gerrak eta energiaren prezioaren gorakadak baldintzatuta, pandemiatik ateratzeak eragindako distortsioekin batera, horiek inflazioaren espirala handitu eta susperraldi ekonomikoa hondatu baitute.

Errealitate partekatua da hori (ia mundu osoan), eta neurri monetario eta finantzario berriak ezartzea eragin du, epe ertaineko ondorioak geldiarazteko. Horien artean nabarmentzekoak dira interes-tasen igoera eta energiaren ordainagiria eusteko ezarritako neurriak, batez ere.

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE, Estatua eta EB-27



1. IV. hiruhilekoko datua behin behinekoa da EB-27 eta Espainiarentzako. Urria-azaroa batez bestekoa.


3 | inguruko herrialdeetan zehar homogeneousatu egin da

Kontuan hartu diren lau herrialdeetako familiek berretsi egin dituzte datozen hamabi hilabeteetarako (2023) dituzten igurikimenak: laugarren hiruhilekoan lortutako emaitzak ez dira aldatu hirugarrenetik; konfiantzak ez du okerrera egin, besterik gabe, ezkortasunean finkatuta jarraitzen du.

Ezkortasunaren maila (indizeko balioa) eta horren bilakaera (indizearen profila, hiruhilekotik hiruhilekora) EAEko familiek (-23) eta Frantzia (20), Alemania (-27), Danimarka (-21) edo Herbehereetako (-31) homologoek partekatzen dituzte, eta agertokirik ezkorrean daude.

Inflazioak izan duen inpaktu orokorra nabarmendu behar da, gorakada adierazgarriak izan baititu (urriko urtetik urterako tasa, KPI harmonizatua-Eurostat) Espainian (+% 7,3), Frantzian (+% 7,1), Alemanian (+% 11,6), Danimarkan (+% 11,4) eta Herbehereetan (+% 16,8).

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak



1. IV. hiruhilekoko datua behin behinekoa da EB-27 eta Espainiarentzako. Urria-azaroa batez bestekoa.

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGARRIAK

- ekonomia orokorrarekiko igurikimene ezkorak izaten jarraitzen dute
- EAEko familiek igurikimen askoz hobea dute langabeziarekiko
- baina familiako ekonomiari buruzko ezkortasuna sendotu egin da
- horrek nabarmen okertzen ditu aurrezteko dituzten igurikimenak
- EAEko familiek 2022 ezkor amaitu dute, urte hasierako optimismotik urrun


4 | ekonomia orokorrarekiko igurikimenek ezkorrak izaten jarraitzen dute

EAEko familiek bilakaera ekonomiko orokorraren gainean dituzten igurikimenak ez dira aldatu (-2 puntu) -beraz, ez dira okertu-, eta maila ezkorretan mantentzen dira (-39), baina oraindik ez dira 2020an zehar bezain ezkorrak.

EAEko familien erdiak baino gehiagok (% 57) uste du datozen hamabi hilabeteetan mantendu egingo dela egoera ekonomikoa; aldiz, jaitsi egin da (% 68tik % 40ra) apur bat (% 33) edo nahiko txarragoa (% 7) izango dela uste duten familien ehunekoa.

Izatez, EAEko ekonomiaren (BPGaren hiruhileko arteko tasari dagokionez; Hiruhileroko Kontu Ekonomikoak, Eustat) 2022ko lehen eta bigarren hiruhilekoko hazkundera (+% 1,1 bi kasuetan) handiagoa izan zen hirugarren hiruhilekoan aurreikusitakoarekin alderatuta (+% 0,1). Horrek ekonomia apur bat geldotu egin dela berretsiko luke, eta urtearen amaieran hazkundera % 5 baino baxuagoa izango da (urte arteko tasa).

Ekonomia orokorrari buruzko egoeraren igurikimenak. EAE




5 | EAEko familiek igurikimen askoz hobea dute langabeziarekiko

EAEko familiek ekonomiaren bilakaera orokorraren gainean dituzten igurikimenak ezkorrak badira ere (-39), langabeziaren gainekoak nabarmen hobekak dira (-14) eta, are, aurreko hilabeteko balorazioa hobetzen dute (+4 puntu): hala ere, azken zazpi hilabeteetako emaitzarik okerrenak izaten jarraitzen dute, baina okerrera egiteko joera eten da.

Zehazki, jaitsi egin da langabeziak gora egingo duela aurreikusten duten familien taldea (% 49tik % 42ra), eta apur bat hobetu da langabezia datozen hamabi hilabeteetan jaitsi egingo dela uste dutenen taldea (% 20tik % 21era).

Alde horretatik, bat egiten dute eskuragarri dauden datuekin, eta oraindik positiboak dira: Gizarte Segurantzako afiliazioa (2022ko urtarrila-azaroa batezbestekoa) 981.521 lagunetara igo da, eta langabezia 113.498 pertsonakoa da. Kopuru horiek, bi kasuetan, 2019koak (2009tik izandako enplegu-urte onena) baino hobekak dira (+15.960 eta -2.078 pertsona, hurrenez hurren).




6 | baina familiako ekonomiari buruzko ezkortasuna sendotu egin da

Familiako ekonomiaren bilakaeraren gaineko igurikimenak erakusten du urte hasieratik okerrera egin duela profilak, eta 2022ko laugarren hiruhilekoan mesfidantza da nagusi (-21); ez da hirugarren hiruhilekoan bezain ezkorra (-25), baina bai pandemian baino ezkorragoa.

Familiako ekonomiaren igurikimenak lotuta daude konfiantzaren beste bi elementurekin: langabeziarekin lotutako igurikimenak (-14) eta prezioak (-51). Bi adierazleek asko egin dute okerrera urtean zehar -geldiarazi egin da prozesua laugarren hiruhilekoan- eta horrek eragin zuzena du familiako ekonomiarekin lotutako konfiantzan.


Familiako ekonomiaren ganean dagoen ezkortasuna geldiaraztearen arrazoia da igo egin dela haien egoera ekonomikoak berdin jarraituko duela adierazi duten EAEko familien taldea (% 44tik % 56ra), eta jaitsi egin da haien familiaren ekonomiak okerrera egingo duela -hein handi edo txikiagoan- adierazi dutenen taldea (% 48tik % 40ra).



7 horrek nabarmen okertzen ditu aurrezteko dituzten igurikimenak

EAEko kontsumitzaileek aurrezteko gaitasunaren gainean duten igurikimenak nabarmen egin du okerrera (-17), eta indize horrek hamaika puntu galdu ditu hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta (-6). Perspektibatik begiratuta, egindako balorazioa ezkorra izaten hasi da, eta 2021eko bigarren hiruhilekoan eta 2022koaren artean erregistratutako balio ezohikoetatik (positiboak argi eta garbi) urruntzen da, pandemia garaiko murrizketek justifikatu zituztenak.

Emaitza horrek agerian uzten du EAEko familiek aurrezteko diru-sarreraren eskuragarritasunaren gainean dituzten igurikimenak okertu egin direla: familien kontuak prezioen gorakada xurgatzen ari dira, eta horrek aurrezteko eskuragarri dauden baliabideak mugatuko ditu.



8 EAEko familiek 2022 ezkor amaitu dute, urte hasierako optimismotik urrun

2022ko laugarren hiruhilekoan, EAEko familien konfiantzak ezkorra izaten jarraitzen du (-23), baina ez du okerrera egin, aurreko hiruhileko balio ia berbera baita (-22). 2022ko batezbesteko balioak (-11) erakusten du EAEko familien konfiantza hoztu egin dela, muturreko balioak izan dituen urtearen ondorioz (lehen hiruhilekoko optimismotik hirugarren eta laugarren hiruhilekoetako hondamenera).

Hazten doan faktura energetikoari (2021eko laugarren hiruhilekoa) azken hogeitun urteotan aurrekaririk izan ez duen prezioen gorakada gehitu behar zaio -erreferentziazko tasen igoera justifikatu du, Europako Banku Zentrala-. Agertoki horrek murriztu egin du 2022ko hazkunde ekonomikoa, eta “inflazio altua” (% 2 baino altuagoa) aurreikusten du 2024ra arte.

Testuinguru horretan, EAEko kontsumitzaileen konfiantza-indizea osatzen duten lau adierazleak negatiboak dira: azpimarratzekoa da ekonomia orokorraren bilakaerarekin lotutako ezkortasuna (-39), langabeziari dagokiona gaintitzen baitu (-14), bai eta familiaren ekonomia (-21) eta aurrezteko gaitasunarekin lotutakoak ere (-17). 2022a nahiko ezkor amaitu da indizearen lau aldagaietan, baina, horietako hiruk okerrera egiteari utzi diote (aurrezteko gaitasunak izan ezik).

Familien konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE

Indizea...	2019	2020	2021	2022	IH-22	IIH-22	IIIH-22	IVH-22	Aldea	
Familien konfiantza	-2	-22	-6	-11	8	-7	-22	-23	-1	▶
Ekonomia orokorra	-6	-33	-12	-23	3	-20	-37	-39	-2	▶
Etxeko ekonomia	-2	-12	-8	-17	-6	-17	-25	-21	4	▲
Langabeziaren bilakaera	-4	-41	-8	-1	19	8	-18	-14	4	▲
Aurrezteko gaitasuna	2	-2	3	-2	15	1	-6	-17	-11	▼

↔ (±2 puntuko aldea)

EUSKAL KONTSUMITZAILEEN EROSKETA-ERABAKIAK

- inflazioa apur bat geldotzea aurreikusten dute EAeko familiek
- are gehiago okertu da erosketa handientzako oraingo egoeraren balorazioa
- eta “erosketa handiak” egiteko igurikimenez oso ahul jarraitzen dute
- etxebizitza edo autoa erosteko asmoa ahula da
- familiek erosketa handiak eta inbertsioak gutxitu egingo dituzte




9 | inflazioa apur bat geldotzea aurreikusten dute EAEko familiek

EAEko familiek prezioen hazkundearen bilakaerari buruz dituzten igurikimenak ezkorrak dira oraindik (-51), baina badirudi beheranzko profil hori geldotu egin dela (-34, -52 eta -57 lehen, bigarren eta hirugarren hiruhilekoan). 2022an gehien okertu den adierazlea da.

Zehazki, laugarren hiruhilekoan apur bat murriztu da prezioak azkarrago igoko direla uste duten EAEko familien ehunekoa (ehuneko -9 puntu), eta igo, berriz, erritmo berean igoko direla (ehuneko +13 puntu) uste dutenen taldea. Halaber, apur bat murriztu da (ehuneko -4 puntu) hazkundera orain baino geldoagoa izango dela uste dutenen taldea. Oro har, EAEko familiek prezioen joera goranzkoa izango dela aurreikusten dute (datozen hamabi hilabeteetarako).

Igurikimen horiek bat egiten dute KPI orokorraren eta azpikoaren² urte arteko igoerarekin (urria) (EIN) EAEn (% 6,9 eta % 5,9), Estatuan (% 7,3 eta % 6,2) eta EB-27n (% 11,5 eta % 7,6, Eurostat). Hori da familien eta autoritate ekonomikoen kezka nagusia, dagoeneko 2022, 2023 eta 2024rako aurreikuspenak murriztu baitituzte.

Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?¹ (pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabetei dagokienez; ² Prestatu gabeko elikagaiak eta produktu energetikoak kenduta

10 | are gehiago okertu da erosketa handientzako oraingo egoeraren balorazioa


Oro har, zer iruditzen zaizu oraingo unea etxerako gaiak (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...) erosteko?

Igotzen ari diren prezioen testuinguruan -EAEko familiek aurreikusten dute joera hori mantendu egingo dela-, ziurgabetasuna da nagusi, eta horrek familien erosteko erabakiak baldintzatzen ditu. Hala, erosteko unearen balorazioa are gehiago okertu da eta berretsi du igurikimenak negatiboak direla argi eta garbi (-24, -35, -36 eta -40, 2022ko lehen hiruhilekotik laugarrenera).

Emaitza horretan eragina du datu honek: familien erdiak baino gutxiagok (% 46) uste du une hau txarra dela erosketa handiak egiteko edo berdin zaio (% 48), eta une ona dela uste dutenen kopurua jaitsi egin da apur bat (% 6).

Kontuan izan beharrekoa: 2022ko I, II. eta III. hiruhilekoan (Hiruhileroko Kontu Ekonomikoak, Eustat) mantsotu egin da familien kontsumo orokorra (+% 0,9, +% 0,2 eta -% 1,8, hiruhilekoen arteko tasan).

Erosteko unearen balioztapena¹ (pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabeteetarako dagokionez


11 | eta “erosketa handiak” egiteko igurikimenek oso ahul jarraitzen dute

Zure ustez, nolakoak izango dira etxeko erosketak edo gastuak (hala nola altzariak, etxetresna elektrikoak, etxebizitzako konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan¹?

EAEko familiek erosketa handiak egiteko duten asmoarekin lotutako igurikimen-indizeak (-6, -7, -14 eta -18 lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan) okertzen jarraitzen du eta 2021eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetako balio positiboetatik (+1 eta +2) aldendu da. Seguru asko, pandemiako une okerrenetan atzeratutako erosketak xurgatuko zituen horrek.

Ondorioz, beherakada progresiboa -lehen hiruhilekotik laugarrenera- izan du erosketa asko edo zertxobait handiagoak (% 21etik % 14ra) edo berdinak (% 53tik % 48ra) egingo dituzten familien taldeak. Aldiz, erosketa zertxobait txikiagoak egingo dituztenen taldea igo egin da (% 26tik % 38ra). Azken finean, badirudi familiak kontsumo handia apaltzearen alde egiten ari direla.


Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan¹ (pertsonek %a)




¹ Azken 12 hilabetei dagokienez.

12 | etxebizitza edo autoa erosteko asmoa ahula da

Familien % 1ek baino gutxiagok adierazi du etxebizitza bat erosiko duela. Ehuneko hori jaisten joan da urtean zehar, eta igurikimen horiek 2023an gauzatuko dira. 2022ko irailera arte, etxebizitzarekin lotutako 18.764 salerosketa-eragiketa¹ egin ziren (+% 14,8 urtetik urterako tasan), baina joera horretan eragina izan dezake ziurgabetasuna nagusitu eta finantzaketa garestitu izanak; izan ere, azaroan, Euriborra (hamabi hilabete) % 2,83koa zen.



Ibilgailu bat erosiko duten familien taldea nabarmen murriztu da (% 2,5ek baietz, ziur), eta egonkortu egin da familien % 90ek baino gehiagok ez duela ibilgailurik erosiko. Ibilgailu berrien matrikulazioek² (urtarrila-azaroa, 19.757 unitate) behera jarraitzen dute (-% 11,4, 2021ekin alderatuta) eta joera hori irauli beharrean, gero eta erakargarriagoa den bigarren eskuko eskaintzarekin lehiatu behar du.



¹ EIN, Jabetza-eskubideen transmisioen estatistika (etxebizitzaren salmenta); ² Anfac.

13 | familiek erosketa handiak eta inbertsioak gutxitu egingo dituzte

Agertoki-aldaketa garrantzitsurik egon ezean, EAEko familiek beren gastuaren eta inbertsioaren igurikimenak okertzen jarraitzen dute, eta horrek 2023an zehar egingo dituzten operazioen etenaldia eta/edo murrizketa aurreikusten du. 2020, 2021 eta 2022ko agertokiak gorabehera handikoak izan dira EAEko familientzat...

- Ezkorrak dira prezioen bilakaerari dagokionez (-51); agertoki inflazionista horrek, nahiz eta partekatua eta inguruko beste herrialdeetan bezain negatiboa ez izan, larria izaten jarraitzen du. Baina, batez ere, puntuala (2022rako) izatetik, 2024raino hedatzera igaro da.
- Erosahalmenean inpaktu adierazgarria du: erosketa handiak egiteko egungo unearen balorazioa (-34, 2022ko batezbestekoa) 2020 eta 2021ekoa baino okerragoa da (-13 eta -12), eta horrek erosketa handiak egiteko aurreikuspenak murriztuko ditu (-11), 2020ko mailara itzuliz (-12).
- Etxebizitza eta/edo ibilgailua erosteko igurikimenak ahulak dira: etxebizitzaren salerosketak hobera egin du (+% 14,8, 2021eko urtarrila-iraila aldean), baina ez da 2007ko maximoetara iristen, eta ibilgailu berrien matrikulazioan beheranzko joera iraunkorra berretsi du (-% 11,4, 2021eko urtarrila-azaroa aldean), 2018an hasi zena eta ez du suspertze-sintomarik izan.

EAEko familiak kezkatuta daude inflazio jarraituak eta finantzaketaren garestitzeak (12 hilabeterako Euriborra, azaroko batez bestekoa, % 2,83; Espainiako Bankua) eragindako ziurgabetasunaren aurrean, eta igurikimen ezkorrak dituzte erosketa eta inbertsio handiei dagokienez.

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	2019	2020	2021	2022	I H-22	II H-22	III H-22	IV H-22	Aldea	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	-20	-22	-41	-48	-34	-52	-57	-51	6	▲
Erosteke unearen balorazioa	-5	-13	-12	-34	-24	-35	-36	-40	-4	▼
Erosketak egiteko igurikimenak	0	-12	-2	-11	-6	-7	-14	-18	-4	▼


↔ (±2 puntuko aldea)

ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantza indizea

euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

beste adierazle batzuk



I laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2019	2020	2021	2022	I H-22	II H-22	III H-22	IV H-22	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea									
• EAE	-2	-22	-6	-11	8	-7	-22	-23	▶
• Estatu*	-6	-23	-13	-27	-18	-26	-33	-30	▲
• EB*	-6	-15	-9	-23	-15	-23	-27	-27	▶
○ Frantzia*	-9	-13	-7	-18	-13	-20	-21	-20	▶
○ Alemania*	-2	-9	-5	-20	-9	-19	-26	-27	▶
○ Danimarka*	--	--	5	-14	-3	-16	-18	-21	▼
○ Herbehereak*	--	--	-4	-26	-16	-26	-31	-31	▶
Osagaiak: familien konfiantza. EAE									
• Ekonomia orokorra	-6	-33	-12	-23	3	-20	-37	-39	▶
• Etxeko ekonomia	-2	-12	-8	-17	-6	-17	-25	-21	▲
• Langabezia	-4	-41	-8	-1	19	8	-18	-14	▲
• Aurrezkia	2	-2	3	-2	15	1	-6	-17	▼
Beste indize batzuk. EAE									
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	-20	-22	-41	-48	-34	-52	-57	-51	▲
• Erosteke unearen balioztapena	-5	-13	-12	-34	-24	-35	-36	-40	▼
• Erosketak egiteko igurikimena	0	-12	-2	-11	-6	-7	-14	-18	▼
Erosketa handiak. EAE.**									
• Etxebizitza	2,1	0,9	1,5	1,2	2,1	1,1	1,0	0,8	▶
• Autoa	6,4	5,3	6,3	6,5	9,7	7,0	7,0	2,5	▼

⇔ (± 2 puntuko aldea)

* IV. hiruhileko datuak urria-azaroa batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II | euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

	<u>2019</u>	<u>2020</u>	<u>2021</u>	<u>2022</u>	<u>I H-22</u>	<u>II H-22</u>	<u>III H-22</u>	<u>IV H-22</u>	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea									
• EAE	-2	-22	-6	-11	8	-7	-22	-23	▶
Adin-mailak									
• 25 eta 39 urte bitartean	4	-17	-4	-4	10	-6	-4	-17	▼
• 40 eta 54 urte bitartean	-2	-22	-7	-14	5	-9	-27	-27	▶
• 55 eta 64 urte bitartean	-6	-25	-6	-11	9	-1	-30	-23	▲
• 65 eta 74 urte bitartean	-8	-26	-8	-14	8	-11	-29	-23	▲
Lan egoera									
• Landuna (soldatapekoa/ norbere kontura)	1	-19	-4	-10	9	-6	-19	-22	▼
• Langabea	-8	-31	-16	-19	-5	-14	-25	-31	▼
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea...)	-6	-25	-7	-12	9	-8	-26	-22	▲
Familia-unitatearen hileko errenta									
• 1.700 €-rainokoa	-13	-32	-19	-22	-1	-21	-31	-33	▶
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	0	-19	-6	-11	5	-6	-22	-21	▶
• 2.800 €-tik gorakoa	4	-14	6	-1	19	6	-14	-15	▶

⇔ (±2 puntuko aldea)

III | beste adierazle batzuk

	IV H – 21	I H – 22	II H – 22	III H – 22	IV H – 22 _p	(azkena)
BPG	4,9	5,8	5,0	3,8	--	III hiruhilekoa
Familien kontsumoa	4,0	3,2	3,0	2,4	--	III hiruhilekoa
Afiliazioa	1,9	0,0	0,9	-1,0	1,6	urria-azaroa
Erregistratutako langabezia	-2,7	-0,6	-2,4	-1,1	-0,9	urria-azaroa
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	3,6	2,5	2,2	-0,2	--	III hiruhilekoa
Etxebizitzen salerosketa	-13,2	39,3	-5,3	-1,5	--	III hiruhilekoa
Ibilgailuen matrikulazioa	3,5	-22,5	26,7	-18,8	23,4	urria-azaroa

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Anfac. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, azken aldakuntza behin behinekoa da eta hori kalkulatzeko eskura dagoen azken datua (bi hilabete) hartzen da kontuan.

Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

ERANSKINA– METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esanahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonak duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ *Consumer Confidence Indicator*, dokumentu honetan familien konfiantzaren indize bezala aipatzen dena, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobegorainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie
- 2022ko azaroaren 7tik 18ra (2022ko IV. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm